



## HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016/11/16

BILERA ZENBAKIA:10

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK:Amaia, Iñigo, Rosi, M<sup>a</sup>Jose, Joxeluis, Maddi, Tere, Danel

### EGINDAKO LANAREN LABURPENA

## LANDUTAKO GAI ORDENA

### 1. KULTUR EKINTZEN BALORAZIOA ETA AURRERA BEGIRAKO EKINTZAK. EGINDAKOAK

- Irasagar eta mermelada ikastaroa. Gerturatu zen jendea oso gustura egon zen.
- Euskara murala. 4 pertsona egon ziren horma margotzen eta nahikoak izan omen ziren. Bertan egingo den marrazkia diseinatuta dago, orain data jartzea bakarrik falta da.
- Mendira txangoa. Eguraldi txarra zela eta jende gutxi bildu ginen, baina oso gustura ibili ginen. Oso ibilbide polita da, gomendagarria.
- Gaztain jana. Jende asko bildu zen, eguraldi txarra egin bazuen ere. Ondo joan zen.

### AURRERA BEGIRAKO EKINTZAK

- Azaroak 18. Kantu afaria. 41 pertsonak erosi dute tikea.
- Azaroak 22. Berdintasunaren inguruko formakuntza.
- Azaroak 23. Pelikula: amaren eskuak.
- Azaroak 25. Ipuin kontalaria.
- Azaroak 25. Elkarretaratzea plazan eta ondoren dokumental emanaldia.
- Azaroak 26. Antzerkia desentxufatuak.



- Abenduak 3, euskararen eguna + talo festa. Egun hontan ekintza asko aurreikusten direnez, egitarau txiki bat prestatzea komentatu da.

## 2. ITSASONDO 2.0 ALDIZKARIA

- Errepaso txiki bat egin dugu aldizkariaren nondik norakoak ezagutzeko. 8 urte damaramatzagu aldizkari honekin eta azkena 34. alea izan da. Tarte honetan hanbat aldaketa izan dira: formatu aldaketa, atal batzuk desagertu dira...
- 2015ean 30. alea atera zela eta solasaldi/jai moduko bat egin nahi zen, baina ez zen jenderik bildu, beraz, iritziak jaso nahian inkesta bat prestatu genuen. Orokorrean balorazio oso onak jaso zituen aldizkariak. Atal gogokoenak zaharrak berri eta elkarrizketa zirela jakin genuen, gaur egun zaharrak berri desagertu da eta elkarrizketa formato laburrera pasa da.
- Bertaratutakoen iritzia eskatzean, iritzi bateratu bat azaldu da: etorri berriek kontatzeko gauza asko edukiko ditutze, baina betidanik hemengoak direnek ere bai. Aspaldiko kontuen ikuspegi hau galdu egin da. Arlo honetan gai asko landu daitezkeela eta, proposamen ugari izan dira:
  - **Baserriko** istorioak. Itsasondon baserri asko dauzkagula aprobeztatuta honi buruzko informazioa izatea interesgarria ikusten da.
  - **Aspaldian kanpotik etorritakoei** elkarrizketa. Nola ezagutu zuten itsasondo, nola dagoen orain...
  - **Harrobien** inguruko gaiak.
  - **Ibarre** erreferente izan zen Itsasondon.
  - **Gaztetxeak** ere izan du bere historia.
  - **Eskolako** gora beherak. Irakasleak, ikastolako mugimendukoak. Ikastolatik herri eskolarako bidea. Udalekuak.
  - **Itsasondo + Altzaga** elkartuta.



- **Ibasko errota.**
- **San Juango kontuan.** Ermita...
- **Gaztetxea eskola zenekoa, gero jangela, eskola txikiak...**

- Elkarrizketa hauek irakurleari gertutasuna transmititzen zien. Pertsona ezagunak ziren denak eta gustokoa izaten genuen kontaktzen zutena irakurtzea.

- Elkarrizketa hauek egiteko ordea, jende aproposa behar dugu, saltsero xamarak direnak eta elkarrizketa nola bideratu jakingo dutenak. Horrelako pertsonen inguruko proposamenak jasotzeko prest gaude.

- Bestalde, komentatu da argazkien atala, diferentziak bilatzekoa gustokoa izaten zela. Agian erantzunak emateko beste bide batzuk ahalbidetu behar dira, ez soilik posta elektronikoa. Kaxak jarri daitezke Kaxintanen...

**HURRENGO BILERA 2017ko URTARRILAREN 18an IZANGO DUGU**

<b>ETXEKO- LANAK</b>	<b>NOIZKO?</b>	<b>ZEINEK?</b>
Hurrengo bilera: URTEKO GAIEN ANTOLAKETA	Urtarrilak 18	MADDI
<b>HURRENGO BILERA</b>		
<b>Hurrengo bilera urtarrilaren 18an izango dugu. GAIA: URTEKO GAIEN ANTOLAKETA</b>		